

9. JARDUERA: MENDIRA ATERALDIA

Gelan ikasitako guztia naturan ematen dela baieztatzeko, mendi ateraldi baten bitartez eginen da. Mendira atera baino lehen, hurrei azalduko zaie mendira joanen gara eta bertan natura aztertzeo aukera izango dutela. Ikastetxetik atera baino lehen, beharrezkoak diren arau batzuk azalduko dizkiegu. Ala nola, errepidearekin kontu handia izan behar dutela eta ezin direla talderik asko bereiztu.

Mendira iritsitakoan, libreki ingurunea aztertzeo aukera emango zaie, beti ere irakaslearen begiradapean egonik. Ikasleek zerbaiten inguruan zalantzak izatekotan, irakaslea prest egongo da erantzuna emateko. Ateraldia bukatu baino lehen, guztiek batera menditik paseo bat eginen dute gelara joan baino lehen. Buelta ematen duten heinean mendiar aurkitu daitezkeen materialak bilduko dituzte hurrengoan egingo den murala osatzeko.

Gelara iristerakoan, eta etxera joan baino lehen, mendian bizitakoaren inguruko asanblada bat egingo da. Korroan eserita, dituzten ezagutzak partekatzeke.